



## **BANCO SANTANDER, OHIKO ETXEBIZITZAREN GAINKO HIPOTEKA BERMEA DUTEN ZORREN BERREGITURATZE BIDERAGARRIA LORTZEKO JARDUNBIDE EGOKIEN KODEARI ATXIKITAKO ENTITATEA**

**6/2012 Legegintzako Errege Dekretuak**, martxoaren 9koak, baliabiderik gabeko hipoteka-zordunak babesteko presazko neurriei buruzkoak, maiatzaren 14ko 1/2013 Legeak, hipoteka-zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta alokairu soziala indartzeko neurriei buruzkoak aldatutakoak, hainbat mekanismo ezarri ditu hipoteka zorra ordaintzeko arazo larriak dituzten hipoteka zorra berregituratzeko.

Araudi horren esparruan, jardunbide egokien kode bat ezarri da, kreditu erakundeak edo profesionalki hipoteka mailegu edo kredituak ematen dituzten bestelakoak erakundeak euren borondatez atxikitzeko.

### **Banco Santander Jardunbide Egokien Kode horri atxiki zaio, ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka bermea duten zorraren berregituratze bideragarria lortzeko.**

Beraz, pertsona fisikoen eremuan, Bankuarekin euren ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka batekin bermatutako mailegu edo kredituren bat kontratatu duten bezero edo abal-emaleek, baztertze-atalasean egonda 6/2012 Legegintzako Errege Dekretuaren **2. artikuluan**, **3. artikuluan**, **5.2. artikuluan** zehaztutako baldintzak eta eskakizunak betetzen dituztenek, Kode horrekin bat egin eta hori aplikatzeko eskatu ahal izango diote Bankuari.

Halaber, baztertze-atalasean dauden abal-emaile eta hipotekadun ez-zordunek exijitu ahal izango dute zor bermatua erreklamatu aurretik –kontratuan eskusio-onurari uko egin badiote ere– aurrez zordun nagusiaren ondarea amaitzea, horri Jardunbide Egokien Kodean aurreikusitako prebentzio neurriak aplikatzeko katerik gabe.

Hiru dira Kode horretako berregituratze-neurriak:

- I) Hipoteka-zorraren berregituratze bideragarria, kapitalaren amortizazioan bost urteko gabealdia aplikatuta, aplikatu beharreko interes-tasa Euriborra gehi %0,25era murriztuta gabealdi horretan, eta guztizko amortizazio-epea 40 urtera handituta, mailegua ematen denetik kontaktzen hasita.
- II) Aurreko berregituratze plana ez bada bideragarria eta Kodeko baldintzak betetzen badira, bere zorraren kita eskatu ahal izango dio zordunak Bankuari, eta Bankuak eskaera hori onartu edo ez aztertu beharko du.
- III) Azkenik, aurreko neurri horiek ez badira finantzarioki bideragarriak zordunarentzat eta Jardunbide Egokien Kodeko baldintza pertsonalak eta helburuak betetzen badira, zorra kitatzeko eskatu ahal izango du zordunak, ordainetan bere etxebizitza emanda.

Ondorengo estekan duzu [1/2013 Legea](#), maiatzaren 14koa, hipoteka-zordunen babesa indartzeko neurriei, zorraren berregituraketari eta alokairu sozialari buruzkoa, eta horren eranskinean dago **ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka bermea duten zorraren berregituratze bideragarria lortzeko Jardunbide Egokien Kodea**.